

Iratxe Esnaola

◆ IDAZLEA



DANI BLANCO

Plaza berri bat

ZENBAT ORDU eman ditudan Donostiako Konstituzio Plazako Hamabost tabernako terrazan eserita, garagardo bat eskuan enparantza jendetsura jarria begia, literaturara gogo. Donostiak letrei eman dizkion bitxien artean Ramon Saizarbitoriaren *100 metro* eleberria daukat beti presente. Eleberri ezagunean ETAkide batek Konstituzio Plaza korrika iragaten du polizia atzetik segika duela. Ehun metroko pertsekuzioan ezagutzen dugu protagonistaren haurtzaroko heziketa frankista, gaztaroko maitemina, militantzia. Metroak bukatzerako, tiroka erailko dute plazan. Zenbatetan ikusi dut ETako gaztea plaza diagonalean korritzen irudimenean. Udaletxe zaharra eskuinaldean utzi du. Atzetik, abaniko forman zabalduz datozkio pertsekutatzaileak. Pausoa luze, matrailezurak airearen kontra: *“Para o te aso, cabrón!”*. Tirokatu eta zauritu dute. Odol jario iritsi da azken metroetara. Amildu da, eman du azken hatsa. Zenbat ordu Donostiako Plaza

Berriko Hamabost tabernako terrazan eserita, plazaren izen aldaketa gogoa. Donostia Sutan 1813-2013 elkarteak –hiria erre eta berreraiki zuten bigarren mendeurrena gogoratzen den egunotan– eskaera ofiziala luzatu dio udalari, behiala, sutearen aurretik, herritarrek enparantza izendatzeko baliatzen zuten Plaza Berri izena berreskura dadila eskatuz. 1812ko Konstituzioa tarteko, 1817rako Konstituzio izen ofiziala ageri da paperetan, nahiz Jexux Arrizabalaga filosofian lizentziatu eta taldeko partaideak argitu izan duenez: *“Plaza Berriaren izena ez du inork historian zehar ezeztatu, gainontzeko izenak horren gainean erantsi dira”*. Aldeko nau aldarrikapenak, merezi baitu antzinako herritarrek demokratikoki erabakitakoari guk kasu egiteak. Modu berean merezi du tradizioei eusteak eta gura ez ditugunak bazterreratzeak. Are gehiago, tradizio gara gu geroni ere gaur, eta honenbes-

tez, guri dagokigu tradizio izan daitezkeenak asmatzea, izan kale zein plaza izendegietan, izan mito eta erreferentetan.

Ramon Saizarbitoriak barkatuko ahal dit fikzioaren tradizioa bera ere antzaldatzera ausartzen banau irudimenak plaza honetan. Urteen joanean bere pertsonaia nire egiten amaitu baitut. Zenbat bider ETako gaztea ikusi beharrean ikusi dut beste korrikalari bat. Sartu da emakume bat plazara nobia jantzian. Ezkontza soinekoa eta lore sorta dakartzeko eskuan. San Vicente elizan ospatzekoa zen ezkontzatik ihesi dator, baina plazan metro batzuk egin garaike, hemen dira ezkontzako gonbidatuak arkupeetan barrena bere xerka. Bat-batean, eta korrika egiteari utzi gabe, jaurti du lore sorta airean garrasi monumentalak eginez (garai batean plazaren lekuan zegoen zezen plaza bezain monumentalak bai, behintzat). Pertsekutatzaileak builaka: *“Itzuli aldarera”*. Hura

korrika, ordea, plaza erdiraino eta han kendu du beloa eta fuera zapata zuriak. Soineko delikatuaren oihalari heldu eta tarratatu du. Urduri begiratu diot nire aulkitik, plaza diagonalean zeharkatzen jarraitzen badu, nire mahaian amaituko baitu lasterketa. Ehun metroak amaitzeko 50 metroren faltan meza-mutila dirudien morroi txikiak biblia bat jaurti dio eta

kopetan jo. 30 metroren faltan aita-amek neba bidali diote esprintean: *“Ezta pentsatu ere guraso-ei hau egitea”*. 20 metroren faltan senargaiak txalekoa jaurti du haragia tapatzeko esperantzan. 10 metrok bereizten gaituztela tabernako terrazan naku-

sa. 5 metro: garagardo pitxerra altxa dut airean. 2 metro: eskua luzatu eta eskaini diot edalontzia. Metro bakarra. Garagardoa hartu eta *“Bai, nahi dut”* esan du irribarrez.

Frankismoaren atzapar armatuetatik ihesi lehen, heteroarauaren hesitartik orain, Plaza Berri berritua amestu dut gaur. ■



Antton Olariaga

